

Azkeneko euskal balea

Zumaiako Itzurun hondartzatik gertu, flyschean barna, urez beterik dagoen haitzulo batean bizi naiz eta, gizaldiz gizaldi, gurasoengandik seme-alabei transmititu diren kontakizunei esker gure espeziearen erronka eta gorabeheren berri izan dut. Azkeneko euskal balea nauzu.

Baleon etxea itsaso eder eta zabala da. Batzuetan bizia eta besteetan barea. Hamaika animalia mota bizi gara lurrunaren hiru herenak estaltzen dituen itsasoan. Kolore eta tamaina ezberdinetako arrainaz aparte, korala, txirla, marmoka, itsas zaldiak eta itsas izarrak aurki ditzakezu, besteak beste.

Zeure buruari galdetuko diozu nolakoa naizen. Begi txikiak ditut, ahoa eta burua, berriz, handiak. Baraila kurbatua dut eta kolore beltzekoa izan arren, sabelean eta bizarren ondoan puntu zuri batzuk ditut. Elikatzeko baliagarri zaizkidan 300 bizar ditut, hamabost metroko luzera daukat eta hirurogei tona pisatzen ditut.

Hamargarren mendean hasi ziren baleak harrapatzen, gu bezala, ugaztunak diren euskal gizakiak. Lehen ehiza haietan ehiztariak gehienetan ehizatuak izaten ziren; isatsaren mugimenduari gure arbasoek urperatzen baitzituzten txalupak eta arrantzaleak.

Tamalez, gero eta iaioagoak ziren itsas-gizon eta -emakumeak. Talaietatik begiztatzen gintuzten. Sua edo txalapartaz gertuen zegoen portuko arrantzaleei ohartarazten zieten. Hamabi lagun etortzen ziren hamar metro inguruko luzera zuten txalupetan eta arpoiarekin ehizatzen zituzten gure asabak.

Zer zuten gogokoen guregandik? Batetik, haragia. Gosete handia pairatzen zen Euskal Herrian, batik bat, kostaldean. Bertan bizi zen jendearentzat jaki bihurtu ginen. Garai hartako pertsonen dietaren parte garrantzitsua ziren gure aurrekoak. Bestetik, gure koipea oso preziatua zen eta erabilera ugari aurkitu zizkioten. Bizarrak ere aprobeztatzen zituzten.

Hamabi eta hamahirugarren mendeetan arrantzale eta txalupen kopurua izugarri hazi zen. Teknika asko hobea zuten. Lemazaina popan zegoen eta arpoilaria, brankan. Arraunak finak ziren, zarata gutxiago egiteko. Era horretara arrantzaleek ezustean harrapatzen zituzten gure arbasoak.

Euskal Herriko biztanleek gehiegi ustiatu zuten Bizkaiko golkoa eta gure espezieko antzinakoak ihesi joan ziren Kantabria, Asturias eta Galizia aldera. Sarraski horien ondorioz, mende gutxiren bueltan euskal balea desagertzeaz zegoen.

Dena dela, gure existentziaren froga ukalezina duzu herri askotako armarrietan; besteak beste, Lapurdiko Getaria, Biriatu, Hendaia, Bidarte edo Miarritzen. Gipuzkoako Hondarribian, Donostian, Getarian edo Mutrikun eta Bizkaiko

Bermeo, Lekeitio, Plentzia eta Ondarroan, bai eta Bizkaiko herri izan zen Castro Urdialesen ere.

Arrantzaleek beste zetazeo mota batzuk aurkitu zituzten Irlanda, Errusia eta Ameriketara egin zituzten itsas bidaietan. Horretarako, sakanatik ekartzen zuten egurrarekin, ibai nabigagarrietan eta kostaldeko kaietan zeuden hamaika ontzioletan gero eta barku handiagoak eraikitzen zituzten gure antzinakoen bila joateko. XVI. mendean karabela izan zen itsasontzirik gogokoena balearen ehizan erabiltzeko.

Euskal Herritik Ternuaraino joaten ziren gure antzinakoak harrapatzera. Horren froga duzu 1565ean Kanadako Ipar Atlantiar kostaldean, Red Bay-n, hondoratu zen San Juan baleontzia. Bidai luze eta arriskutsuak ziren.

Nola lortzen zuten garai hartako gizakiak bizirik irautea periplo izugarri haietatik? Dieta egoki bati esker, zalantzarik gabe. Azpimarratzekoa da kupel handietan eramaten zuten sagardoa. Sagarretik lortzen den edari honek propietate bereziak ditu eta horrela marinel haiek ekiditen zuten C bitaminaren faltak sortzen duen eskorbutu gaixotasun beldurgarria.

Non ekoizten zen sagardo nahikoa zama-ontzi transozeaniko horietan Ameriketaraino joan eta etorria egiteko? Gipuzkoan zehar barreiatuta zeuden hamaika tolare etxe eta baserrietan. Horren adierazgarri dugu garai hartan Hernaniko Andre kalean zeuden lau tolareak edo Ezkion bisitatu dezakezun XVI. mendeko zurezko Igartubeiti baserria.

Nahiz eta hamabosgarren mendetik harrizko baserriak eraikitzen hasi ziren Gipuzkoan, gehienak egurrezkoak ziren, esate baterako aipatu berri dizudan Igartubeiti, Ormaiztegiko Arandi, Gabiriako Izarre Haundi edo Azkoitiako Aginaga. Baserriak ziren familien eta abereen egoitza, lantegi, topagune, lastoa pilatzeko lekua...

Igartubeitiko goiko solairu osoa uzta gordailatzeko erabiltzen zen eta ondo aireztaturik egon behar zuen jasotako fruituak ez hondatzearren. Era berean, Etxebizitzaren luzera osoa hartzen zuen zurezko tolare erraldoi baten armazoa inguratzen zuela egin zen baserria, eta hor zapaltzen ziren udaren amaieran bildutako fruituak.

Orduko etxe guztiek sagardoa jasotzeko upelak bazituzten arren, lurraren berezko desnibelaz baliatuz upategi bat ere egiten zuten erdi lurrazpian.

XI. mendetik aurrera sagarrondo ugari landatu ziren eta lurralde honetako baserrien aberastasun nagusienetako bat izan ziren. XVI. mendeko Gipuzkoako haranen fruituen artean sagarra eta garia nagusi ziren. Garai honetan Ameriketako herrialdeekin zeuden harremanak eta beste arrazoiak zirela medio ekonomiak hobera egin zuen eta askorentzat ongizate maila hobetzea ekarri zuen.

XVI. mendearen amaieran krisialdi latza izan zen. Gipuzkoako untzi eta itsasgizon asko desagertu ziren Itsas Armada Garaiezinaren porrotaren

ondorioz eta 1598an izurrite pozointsu batek ere samina eta heriotza zabaldu zituen nonahi. Testuinguru honetan, Ternuako arrantza blokeatuta egon zen, eta hori dela eta untzigintza gainbehera joan zen, ordura arte puntakoa izan zena Europan. Barruko arroetan hiribilduetan lan egiten zuten artisauen gremioak desagertu egin ziren.

Itzulera bat izan zen nekazaritza eta abeltzaintzara. Horrela, XVII. mendearen hasieran, Igartubeiti baserriari eskaratz korritu berria eta oholekin itxitako ganbara zabala gaineratu zitzaion. Artoa zabaldu zen urte hauetan. Aberasteko balio izan ez bazen ere, familia apal askorentzako baldintza duinagoetan bizitzea ekarri zuen.

Eta ni hemen nauzu, ezkutaturik, kobazulo ilun honetan. Batzuetan, gaez itsasgora dagoenean, aprobetxatzen dut itsas zabalean murgiltzeko eta eguna argitu aurretik berriro nator nire txoko sekretu honetara. Bertan zaintzen dut nire burua eta, zuri kontatzeko, nire bihotzean gordetzen ditut baleen eta gizakien istorio eta pasadizuak. Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Zumaiaiko Amaia plazan.

Bale beltza